



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental

Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Hondarribiko hiri-antolamenduko plan orokorraren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua ematen duena.

AURREKARIAK

2021eko irailaren 28an, Hondarribiko Udalak eskabidea aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Hondarribiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zedin, bat etorrita Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrarekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi zituen, tartean, Planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta Planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Hondarribiko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrek egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koaren) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek hartzen edo onartzen baditu eta legeko edo arauko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei buruz, eta, hain zuzen ere, Hondarribiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra plan horien artean dago.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.



Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Hondarribiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, Plana edo HAPO) irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 164/2020 epaiaren bidez, 2017an onartutako Hondarribiko Plan Orokorraren erabateko deuseztasuna deklaratu zen, eta ez zen onartu Udalak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa. Horren ondorioz, 1996ko arauak indarrean jarraitu zuten, eta Hondarribiko Udalak udal-plangintza berrikusi eta eguneratu zuen.

Plan Orokor berriaren helburua udalerrri osoaren egiturazko antolamendua eta, hala badagokio, antolamendu xehatua egitea da. Ardatz estrategiko eta helburu hauek ditu abiapuntu:

- Txingudiko badian jarraitutasuna sustatzea. Hendaia, Irun eta Hondarribiko hiri-proiektuak bateragarri egitea.
- Mugikortasun-arazoak konpontzea, hala nola garraio pribatuaren erabilera handia eta eskualdeko bide-sareko elementuen ahalmen mugatua. Hondarribiko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana eta Mugikortasun Jasangarriko Ituna inplementatzea proposatzen da (2019ko urriaren 30eko Udalbatzan onartu zen).
- Jasangarritasuna inplementatzea. Besteak beste, hiri trinkoago baten aldeko apustua egitea proposatzen da, gutxiegi erabilitako eremuak birdentsifikatuz eta espazioen erabilera mistoa sustatuz.
- Klima-aldaketarekiko kezka txertatzea hirigintza-antolamenduan.
- Ingurune fisikoaren antolamenduari heldzea, hura hondatu gabe, dituen potentzialtasunak aprobetxatzeko erabilerak esleituz eta udal-mailan azpiegitura berdea ezarritik.

Hiri-antolamendurako 3 aukera planteatzen dira, bizitegi-garapeneko eta jarduera ekonomikoko hainbat eremu uztartzeko. Lehenengoak ahalik eta okupazio gehien hartzen du bere baitan; beste bi aukerak, berriz, zabalagoak dira, maila desberdinetan, udalerriri eskaintzen dituen lurralde-aukerak ez agortzeko.

• 1. aukera:

- o Bizitegia: 2.305 etxebizitza, 1.523 garapen berrien artean
 - Basako
 - Etxanikenea
 - Montañenea
 - Tudelenea-Botika I
 - Tudelenea-Botika II
 - Arkolla
 - Sorondonea
 - Karmeldarrak
- o Ekonomia-jarduerak:
 - Elbistieta
 - Zaldunborda

- Zaldunborda Gaina
 - Zubieta-Urdanibia
- 2. aukera:
 - Bizitegia (2017koaren antzekoa): 2.075 etxebizitza, 1.293 garapen berrien artean.
 - Basako
 - Etxanikenea
 - Montañenea
 - Tudelenea-Botika I
 - Tudelenea-Botika II
 - Karmeldarrak
 - Ekonomia-jarduerak:
 - Elbistieta
 - Zaldunborda
 - Zaldunborda Gaina
 - Zubieta-Urdanibia
- 3. aukera:
 - Bizitegia: 1.800 etxebizitza, 1.018 garapen berrien artean.
 - Basako
 - Etxanikenea
 - Montañenea
 - Tudelenea-Botika I
 - Arkolla
 - Sorondonea
 - Karmeldarrak
 - Ekonomia-jarduerak:
 - Elbistieta
 - Zaldunborda
 - Zaldunborda Gaina
 - Zubieta

Jarraian, bere hiru aukeretako batean aurrerapenak arau subsidiarioen antolamenduaren aldaketak proposatzen dituen eremu nagusiak zerrendatzen dira:

- Gaintxurizketa gaina: Zaldunborda Gaina, Elbistieta eta Zaldunbordako ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarriko eremuak sartzea proposatzen da. Plan Partzialaren edo, hala badagokio, Bateragarritasun Planaren bidez garatzea proposatzen da.
- Zubieta eta Karmeldarrak: Lau Haizetako mendebaldeko eremua desklasifikatzea proposatzen da, eta gainerakoetan jarduera ekonomikoko eta bizitegi-jarduerako erabilerak ezartzea. Plan Partzialaren edo, hala badagokio, Bateragarritasun Planaren bidez garatzea proposatzen da. Baliteke Gibeletako sarbideetan eta bideetan aldaketak egin behar izatea.
- Mendelu eta Eskapatxulo: plan Berezi bidez garatzea proposatzen da. Eta Lau Haizeta eremua desklasifikatzea eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea proposatzen da.
- Sorondonea: lurzoru urbanizaezin hori proposatzen da bizitegi-erabilerako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzeko. Proposamen horrek Amuteko sarbide eta bideetan aldaketak egitea eskatuko luke.
- Kosta-Santa Engrazia eta Arkolla: zuzkidura-jarduketak proposatzen dira Kostan eta Santa Engrazian, eta Mandobidea garatzea Plan Bereziaren bidez.
- Tudelena eta Botika: azalera desberdineko bizitegi-lurzoru urbanizagarri gisa proposatzen da, aukeraren arabera, eta garbigunea lekuz aldatzea.
- Montañenea: hiri-lurzoruan sartzea proposatzen da.
- Etxanikenea: lurzoru urbanizaezineko eremua, bizitegi-erabilerako lurzoru urbanizagarri gisa proposatzen dena.
- Basako: eremuaren eraikigarritasuna handitzen da.

Beste jarduera batzuk:

- Hirigunea: birdentsifikazio-jarduketak eta zuzkidura-jarduketak proposatzen dira.
- Portu Auzoa: kontserbazio plan berezi bat proposatzen da, ondare-balioak babesteko.
- Mendeluko-Eskapatxuloko ingurumena hobetzeko eta hiria berritzeko jarduketak.
- Higerreko ingurumena berrantolatzea eta berreskuratzea.
- Komentu Txikiri jarraipena ematea, Tudeleneara eta Mendebaldeko Bideraino. Sorondonea, Arkolla eta Tudelenea-Botika komunikatuko dituen bidea proposatzen da.
- Garbigunearen sistema orokor berria Txiplaoko jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren ondoan.

- Sistema orokorreko espazio libreak eta hiri-parkeak identifikatzea.
- Bide-sarea, oinezkoentzako bidea eta bizikletentzako bidea hobetzea.

Proposatzen den lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak, hierarkian gorago dagoen plangintzaren zehaztapenen arabera, karakterizazio agrologikoa izango du kontuan, araudi bat sortzeko oinarri gisa, landa-erabilerei bideragarritasuna emango diena, jarduera desegokiak ezartzea saihestuko duena eta nekazaritza-ingurunearen babesa bermatuko duena.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, Plana gidatzeko, garapen jasangarriko printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzoruak eta lurzoru naturala urbanizatu gabe, artifizialduta lurzoruak modu intentsiboan baliatuz, beste lurzoru batzuk erabili aurretik. Plangintzako zehaztapenen beharra justifikatzea, haien ingurumen-eraginekin lotuta.
- Hiri-segregazioa eta -sakabanatzea eta mugikortasun indutua saihestea; hala, irisgarritasuna lagunduko da lurzoru-erabilerak eta mugikortasuna modu integratuan planifikatuz eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz. Urrutiko urbanizazio eta garapen berriak sortzea saihestea.
- Lurzorua gutxiago zigilatzea, haren erabilera jasangarriagoaren bidez, era horretan ahal beste eginkizun atxiki ditzan. Hautemandako beharrak asetzeko beharrezkoa den gutxieneko azalera ukitzen dela justifikatzea.
- Habitata eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- Biodibertsitate-galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoraztea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea. Saihestea biodibertsitate-elementu bereziei kalte egitea (bertako landaredia, espezie mehatxatuen habitata, Batasunaren interesekoak diren habitata, ibaiak eta errekek, padurak, heskaiak, ...).
- Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- Ondare geologikoa kontserbatzea.
- Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- Baliabide naturalak modu jasangarrian kontsumitzea sustatzea: ura, energia, lurzoruak eta materialak.
- Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea apaltzeko eta aldaketara egokitzeko neurriak sartuz.
- Arrisku naturalak gutxitzea.
- Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera bultzatuz.

Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertu beharko du proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten aipaturiko garapen jasangarriko printzipioetatik ondorioztatutako ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak. Horretarako, helburuok betetzeko hartutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak

Planaren aplikazio-eremu geografikoak Hondarribiko udal-mugarte osoa hartzen du, 28,63 km² inguru. Hondarribia Txingudiko badian dago, Gipuzkoako lurralde historikoaren ipar-ekialdean. Bidasoa ibaiaren bokaleak osatzen du badia, eta Hendaiarekiko muga naturala da; gainera, udalerririk Irun, Pasaia eta Lezorekin muga egiten du. Hiria Baiona-Donostia Eurohiriaren parte da, eta Donostialdea-Bidasoa Beherea eremu funtzionalaren barruan dago.

Hondarribiko udal-mugartearen lurralde-eremuan ingurumen-balio nabarmenak dituzten eremuak daude. Hauek dira ingurumen-garrantzi bereziko eremuak:

- Batasunaren Intereseko Lekuak (Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120017), Txingudi-Bidasoa Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120018) eta Txingudiko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (ES0000243))
- Hezeguneak (A1G6 Txingudiko hezegunea eta EAeko Hezeguneen LAParen III. taldean sartutako hezeguneak)
- Jabari publiko hidraulikoa eta itsas-lehorreko jabari publikoa.
- Korridore-sarea (Aiako Harria-Jaizkibel lotura-igarobidea eta Zaldunbordako gunek kritikoak),
- Jaizkibel ikuseremu katalogatua.
- Gainazaleko hidrologia Jaizkibelgo iparraldeko isurialdean zuzenean itsasora isurtzen duten erreka txikiak dira; hegoaldeko isurialdean, berriz, erreka Jaizubiaren arrokoak dira (Bidasoaren ibaiadarra) edo zuzenean Bidasoa ibaiaren estuarioan isurtzen dituzte urak.
- Kostaldeari lotutako landare-komunitate baliotsuak daude (itsaslabarretako landaredia, kostaldeko txilardiak eta landa atlantikoak), baita urari lotutako komunitateak (haltzadiak, esfagnadiak, estuarioko landaredia) eta harizti-aztarnak ere. EAeko flora baskularren zerrenda gorriko 23 espezieen populazioak biltzen ditu udalerriak.
- Eremu horretan interes handiko fauna dago, sastrakadi eta zuhaixka-formazioei, landazabal atlantikoari, hostozabalen basoei, itsasertzeko labar eta harkaiztegi, baso-landaketei eta estuarioei lotuta. Katalogatutako 25 ornodun espezie daude. Gainera, bat dator EAeko Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren interes bereziko eremuarekin.
- Interes geologikoko lekuak (IGL): Jaizkibelgo ibai-haranak, Jaizkibelgo sasiparamoudrak eta Labetxuko higadura-formak (Jaizkibel)
- Balio agrologiko handiko lurzorua, batez ere Jaizubi ibaiaren eta Bidasoaren ibarretan.
- Baso-masa autoktonoak, padurak eta Batasunaren intereseko habitatak.
- Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen banaketa-eremuak.
- Akuiferoak betetzeko eremuak, baita akuiferoak kutsatzeko arrisku handia duten aldeak ere.
- Onura Publikoko Mendiak eta Mendi Babesleak

Kultura-ondarearen ikuspegitik, badira Hondarribian ondare historiko-arkitektonikoko eta ondare arkeologikoko ondasunak, bai eta usteko arkeologia-eremuak ere, katalogoetan edo inbentarioetan sartutakoak.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten edo izan ditzaketen eremuen artean honako hauek aipatu ahal dira:

- Uholde-arriskuak eragindako garapen-eremuak (batez ere Jaizubi ibarra).
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten kokalekuek eragindako eremuak.
- Udalerriarren zati batean akuiferoak kutsatzeko arrisku handia eta oso handia duten orbanak daude.
- Subsidentzia-fenomenoak izan ditzaketen eremuak. Zaldunbordako zabortege zaharrak okupatzen duen eremuan hondoratze-fenomenoak, asentu diferentzialak eta lurzoruen kolapsoak gerta daitezke karga-gaitasuna gaintitzearen ondorioz.
- Kalteak edo eragozpenak eragin ditzaketen zarata-mailen eraginpean dauden eremuak.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan efektu esanguratsuak dituzten jarduketak egiteko, desegokitzen jo beharko dira aurreko atalean jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak, gutxienez. Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko.

Hasiera batean, ez da eremu desegokirik aurkitu Planak proposatutako jardueretarako edo erabileretarako, baldin eta justifikatzen bada proposamenak bateragarriak direla indarreko legeriarekin, eta ez badira gaintitzen oro har onartzen diren arau edo azterlan teknikoetan ezarritako muga-balioak edo gida-balioak. Besteak beste, arau hauekin izan beharko dira bateragarriak:

- 356/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, «Txingudi-Bidasoa» (ES2120018) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena, eta eremu horren eta «Txingudi» Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (ES0000243) kontserbazio-neurriak onartzen dituena.
- 357/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Ulia (ES2120014) eta Jaizkibel (ES2120017) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituena eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituena.
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, hainbat plan hidrologiko berrikustea onartzen duena, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa, adibidez.
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAeko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana behin betiko aldatzea onartzen duena.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

- Ekainaren 25eko 4/2015 legea, lurzorua kutsadura prebenitzekoa eta zuzentzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa.

5. Egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Jarraian, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulteren izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdi horiek–:

- **Natura-ondarea:**

- Uste da ezen, batez ere 1. aukeran, nekazaritza-polderrak mugatuta geratuko liratekeela Zubieta/Urnanibiako jarduera ekonomikoaren proposamenen eta Karmeldarrak eremuko bizitegi-garapenen artean. Eta, jarduera horiek KBETik kanpo egiten badira ere, ez da ahaztu behar Natura 2000 gune batetik kanpo egiten diren plan eta proiektuek kontserbazio-helburuetan izan ditzaketen ondorioak aztertu behar direla, baldin eta haietan eragina izan badezakete. Eta, beraz, beharrezkotzat jotzen du ingurumen-azterketa estrategikoak aztertzea zer ondorio izango diren eremuaren kontserbazio-helburuetan.

- Zaldunbordan 2 ha haltzadi kantauriar kenduko litzuzkeen jarduera ekonomikoak garatzeko proposamena ikusita, beharrezkotzat jotzen da proposatutako antolamendua berrikustea, neurri zuzentzaileak eta konpentsazioak har ditzaketen berdeguneak handitzeko, sektorearen mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko zerrendan gune berde bat ezartzea barne, Aiako Harriaren eta Jaizkibelen arteko korridorea indartzeko. Ezinbestekotzat jotzen da 1:2 konpentsazioa (kendua:leheneratua), kendutako baso-azalera ez ezik, haren funtzionaltasun ekologikoa ere konpentsatzeko, eta hori ahal bezain laster onartu eta gauzatu den leheneratze-proiektu baten bidez gauzatu beharko litzateke.

- Lurzoru urbanizaezinaren kalifikaziorako irizpideak aurkeztu dira, HAPOak kontuan har ditzan.

- **Arriskuei buruz**

- Uholde-arriskua: proposamenak 500, 100 eta 10 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanen eraginpeko eremuetan eta lehentasunezko fluxu-eremuetan kokatzen diren eremuak identifikatzen dira (Jaizkibel, Zubieta/Urnanibia, Mendeluko Iparra/Eskapatxulo, Sorondonea, Aireportua/Gabarri/Erribera, Zumardia, Basako). Jabari publiko hidraulikoaren ukipenei, haiekin lotutako babes-eremuei eta uholde-arriskuko eremuei dagokienez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa bete beharko da; edonola ere, ahaleginak egin behar dira aztergai dugun eremuan uholde-arriskua ez areagotzeko, eta instalazioak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duten kotetatik gorago jarri beharko dira.

Gainera, Itsas Jabari Publikoaren mugaketak eragindako eremuetan, Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea eta urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan onartutako Kostaldee buruzko Erregelamendu Orokorra aplikatuko dira.

Eta Eusko Jaurlaritzaren 1992ko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren azterlan plubiometrikoa ikusita, egin beharreko obretatik erator litezkeen drainatze-obra guztiak diseinatzeko, kontuan hartuko dira prezipitazio horiek, dagozkien itzulera-erariekin korrelazioan.

- Arrisku sismikoa: 2006ko iraileko Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera, ez da beharrezkoa Larrialdiko plan sismikoa egitea, baina eraikuntza berrietan sismoen aurkako Eraikuntza Araua hartuko da kontuan: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02), irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.

- Baso-suteen arriskua: kontuan hartu behar dira Baso-Suteetako Arriskuaren aurrean Larrialdietako Babes Zibileko Planaren Oinarrizko Gidalerroak (2013ko azaroaren 15ean Ministro Kontseiluaren erabaki bidez onartutakoa) jasotzen dituen mugak eta baldintzatzaileak, baita EAEko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezian jasotzen direnak ere.

- Arrisku teknologikoak:

- Salgai arriskutsuen garraioari dagokionez, GI-636 errepidea arrisku txikikotzat edo oso txikikotzat jotzen da.

- Larrialdi aeronautikoari dagokionez, udalerririk Larrialdi Aeronautikoetarako Udal Jarduketa Plana egin behar du.

- Badaude historikoki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten lur-sailak, eta, horrenbestez, arriskutsuak izan daitezkeenak etorkizuneko erabiltzaileentzat edota ingurumenerako. Lurzati horiek sartuta daude lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Arau Subsidiarioetan ezarritakoak aldatzen dituzte. Ingurumen-ebaluazio berriak jarduketa-proposamen berriek sortutako efektu espezifikoak hartuko ditu oinarri. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko efektuak honako hauek izango dira soilik: planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen direnen aldaketan ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko liratekeen efektuak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, IAE) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoaren arabera, eskatutako edukiek eduki eta egitura hau izan beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da IAEak hurrengo alderdietan sakondu behar duela, gutxienez, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Proposatutako planaren deskribapena.

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Argi eta garbi identifikatu beharko da zein proposamen dauden indarrean, zein proposatu ziren 2017ko HAPOan eta zein diren Plan honekin planteatzen diren proposamen berriak. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak:

a) Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen plana onartzeko prozedura, eta sustatzailea, organo sustatzailea eta behin betiko onspenaren organo substantiboa identifikatuko dira.

b) Identifikatuko da ea zer plan edo programa dauden hierarkikoki planaren gainetik, zeinen helburu eta zehaztapenak haren bidez garatzen baitira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onspen-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren. Gutxienez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) (128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa).
- Donostialdea-Bidasoa Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala (121/2016 Dekretua, uztailaren 27koa).
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa). Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua zehaztean, kontuan hartuko dira LPS horrek ezartzen dituen gidalerroak eta araudia; bereziki balio agrológico handiko lurzoruei eta erabilgarritasun publikoko mendiei dagokienez.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa).
- EAEko Hezeguneei buruzko Lurraldearen Arloko Plana (231/2012 Dekretua, urriaren 30ekoa).
- EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren (2005-2016 aldian) (307/2010 Dekretua, azaroaren 23koa) berrikusketa eta EAEko Errepideen Hirugarren Planaren zirriborroa (2017-2028).
- EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana (41/2001 Dekretua, otsailaren 27koa).
- Ekonomia-jardueretarako eta merkataritza-horniduretarako lurzoruen sorkuntza publikoaren lurraldearen arloko Plana (262/2004 Dekretua, abenduaren 21ekoa).
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki uholde-arriskuko eremuei eta Eremu Babestuen Erregistroari lotutako zehaztapenak (400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa).
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa).

- Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 23. eta 31.4 artikulua.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

c) Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.

d) Hierarkian planaren gainetik dauden planek edo programek ingurumena babesteko izan ditzaketen irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehaztuko dira, planari aplikatzekoak badira.

e) Hierarkian gorago dauden plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazioko prozeduraren bat ezarri bazaie, prozedura horiei amaiera eman zieten ingurumen-adierazpen estrategikoen datak eta jaulkipen-egintzak aipatuko dira, eta adieraziko da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren eta zer estekatan kontsulta daitezkeen. Kasu horretan, zehaztu beharko da ingurumen-adierazpen estrategiko horien zehaztapenetatik zeintzuk eragiten dieten planaren helburuari edo eremuari, bai eta ingurumen-ebaluazioko irizpideak ere, ingurumen-adierazpen estrategikoetan edo bere garaian indarrean zegoen araudia aplikatuz igorritako dokumentu baliokideetan ezarritakoak.

Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Europar Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak) ere, Plana diseinatzeko aplikagarriak direnean. Espezifikoki justifikatu beharko da ebazpen honen 2. atalean jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak nola bete diren. Justifikazio hori bai arauetan bai plan partzialean bertan ezarritako adierazle eta mugen erabileran oinarrituko da.

Ingurumen-helburu estrategiko aplikagarriak txertatuz justifikatuko da planteatutako zehaztapenen beharra. Zehazki, argudiatuko da aurkeztutako proposamenekin hiri trinkoago baten aldeko apustua egiten dela, gutxiegi erabilitako eremuak birdentsifikatuz eta espazioen erabilera mistoa sustatuz (Planaren beraren ardatz estrategikoa), eta lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzen dela eta hiri-segregazioa eta sakabanatzea saihesten dela (2. puntuko a eta b irizpideak).

1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.

a) Planean hautatutako aukeren bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Antolamendua aldatzen den esparru/azpiesparru guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarreko plangintzaren, hau da, 96ko Arau Subsidiarioei dagokien plangintzaren eta ondorengo onarpenen, eta Planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa. Proposamen berrien artean, identifikatuko da zein proposamen egin ziren 2017an onartutako plangintza orokorrean eta zein ez.
Konparazio horretan, proposamenak dakarren eraikigarritasun-aldaketaz gain, proposamena ezartzeak ekar ditzakeen jarduketa guztiak jasoko dira: bide eta sarbide berriak eraikitze beharra, hornidura-azpiegitura berriak, saneamendua, sareak...
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, ekarpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

Azterlanak HAPOaren helburu nagusien laburpen txiki bat jaso beharko du, eta era berean, xehetasun osoz deskribatu beharko ditu Planean txertatutako proposamen, aldaketa edo xehakapen berriekin lotutako ekintzak –aldaketa edota xehakapen horiek eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamendua oinarri hartuta bereiziko dira, betiere ingurumenean efektu kaltegarri nabarmenak izan baditzakete–; horretaz gainera, eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak hartuko dira kontuan.

Horrela, jarduketa-eremuetarako proposamen zehatzen definizioa jaso beharko du IAEak, HAPOaren aurrerapenean aurkeztu diren jarduketa-aukera irekiak zehaztuta.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua sartu beharko da IAEan. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak mugatu eta definitu beharko dira, bai eta horietako bakoitzean esleitutako erabilera-araubidea ere.

b) Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarri buruzko aurreikuspen bat egingo da. Zehazki, arreta berezia jarriko zaie hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo ingurune eraldaketa nabarmenak eragin ditzaketen jarduerari, baita lurzorua kutsa dezaketen jarduerak nozitzen edo nozitu dituzten lurzoruetan eragina dutenei ere.

Besteak beste, Arkollatik igarota Sorondonea eta Tudelenea lotzen dituen bide bat garatzeko 1. eta 3. aukeretan aurkeztutako ezarpen-proposamena deskribatuko da. Era berean, Gaintxurizketako eremuan, besteak beste, proposatutako ezarpen posibleak hornitzeko beharrezkoak diren azpiegituren trazadura zehaztuko da: ur-hornidura; hondakin-uren hustuketa, isurketa eta tratamendua (eta zabortegitik datozen lixibiatuena, Zadunbordaren kasuan), eta azpiegituraren trazadura saneamendu-sare orokorrekin lotu arte...

Horrez gain, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako planak edo proiektuak identifikatu beharko ditu IAEak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

c) Deskribatu eta lokalizatuko da planeko zer ekintzak eragin diezaiokeen ingurumenari, eta hierarkizatuko dira eraginik handiena dutenetik gutxiago dutenetara, kontuan hartuz haien kokapen zehatza, izaera, tamaina, funtzionamendu-baldintzak eta baliabide naturalen kontsumoa. Planean deskribatzen den ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio, zeina IAEan hurrengo apartatuetan erabiliko baita, ekintzat aipatu behar direnean.

d) Adieraziko da zer garapen aurreikusten zaion planari, behin betiko onartu ondoren, eta plangintzaren ondorengo faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da nola egin plana garatzeko tresnen ingurumen-ebaluazioa.

e) Nolanahi ere, plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan deskribatutako ekintzetarako zehaztuko da. Ahaleginak egingo dira proposamenak modu ordenatuan garatzeko, hiri-bilbean txertatuta dauden zuzkidura-proposamenetatik hasita, espazio hutsak uztea saihesteko.

f) Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketan kokapena, pdf eta shape formatuetan.

g) Lurzoru urbanizaezinari buruzko proposamenak izan behar duen irismenari dagokionez, jarraian jasotzen dira lurzoru hori kategorizatzeako irizpideak, Planean kontuan hartu beharko direnak:

- Honako eremu hauek lurzoru urbanizaezinaren babes bereziko kategorian sartu beharko dira, eta zonakatzea eta erabileren erregulazioa enklabe bakoitzaren berariazko tresna arauemaileen arabera gauzatuko dira:
 - Hondarribia bat dator Natura 2000 sareko hainbat gunerekin: ¹Jaizkibel KBE (ES2120017), Txingudi-Bidasoa KBE (ES2120018) eta Txingudi HBBE (ES0000243).²
 - Txingudik, halaber, Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatze Plan Berezia dauka³.
 - 2015ean, Txingudiko Plan Zuzentzailea egin zen. Dokumentu horrek Txingudiko estuario-ekosistemen konektibitatea berreskuratu eta hobetzeko hainbat proiektu eta jarduera koordinatzen ditu, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak bultzatuta. Hondarribiko HAPOak bere gain hartu beharko ditu Plan Zuzentzaile horretan aurreikusitako gidalerroak.
 - Kostaldeko LAPeko babes bereziko eremuak⁴.
- Espazio hauek lurzoru urbanizaezinaren babes bereziko kategorian sartuko dira edo gainjarritako baldintzatzaile gisa tratatuko dira, eta udal-araudiak babestu beharko ditu katalogatzeko erabili diren balioak. Horietarako kudeaketa-araudia onartzen bada edo aurreko puntuetan aipatutako espazioekin gainjartzen badira, araudi espezifikoak ezarritakoa aplikatuko da:
 - LAGen zerrendan sartutako natura-intereseko eremuak (NIE).
 - EAeko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako gunekak.

¹ 357/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Ulia (ES2120014) eta Jaizkibel (ES2120017) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituenak (ES2120017), eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituenak.

² 356/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, «Txingudi-Bidasoa» (ES2120018) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena, eta eremu horren eta «Txingudi» Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (ES0000243) kontserbazio-neurriak onartzen dituenak.

³ AGINDUA, 2001eko irailaren 26koa, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuarena, Txingudiko baliabide naturalak babestu eta antolatze plan berezia behin betiko onartzen duena, Hondarribiko udalerrian dagoen zatian.

⁴ 43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa, EAeko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen arloko Plana behin betiko onartzen duena.

- Geologia Intereseko Lekuak (IGL)⁵.
 - Bestalde, Hondarribian 3 IGL daude, Jaizkibel KBEarekin bat datozenak horiek ere:
 - Jaizkibelgo ibarrak
 - Jaizkibelgo sasiparamoudrak
 - Labetxuko higadura-formak (Jaizkibel)
- Udalerrian dauden baso-masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak (BIH) babes bereziko kategoria batean sartu behar dira, eta, horrela, kautelazko neurriak ezarri behar dira horiek babesteko, honako hauen arabera: 92/43/EEE Zuzentaraua (11. artikulua), Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea (46.3 artikulua), Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua (2.e artikulua) eta Lurralde Antolamenduaren Gidaleroak–LAG– (II. eranskina. 1.a.2.d). KBEetatik kanpo, Hondarribian, ezinbestean babestu behar diren landaredi autoktono ugari daude, hala nola haltzadiak (91E0 BIH*) eta udalerrri osoan sakabanatuta dauden hariztiak.
 - Udalerrian flora edo fauna⁶ espezie mehatxatuak detektatuz gero, honako jarraibide hauek beteko dira:
 - Neurriak hartuko dira eremu sentikorrenak (flora-banaketa inguruko moteltze-eremua, babeslekuak, habiak egiteko gunek, etab.) plangintzaren Babes Bereziko kategorian sartzeko, eta horiek zaintzeko kautelazko neurriak ezarriko dira.
 - Onartutako kudeaketa-planen mende dauden espezieen kasuan, hirigintza-plangintzak jasoko ditu kudeaketa-plan horietan zehaztutako babes-eremuak, eta bere xedapenak nahitaez errespetatu behar direla adieraziko du. Dagozkion organo kudeatzaileak kontsultatuko dira, kudeaketa-plan horietan ezarritakoaren arabera.
 - Faunari dagokionez, azpimarratu behar da Jaizkibel eta Txingudi, eta, beraz, Hondarribiko lurraldearen zati handi bat, goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan talken eta elektrokuzioen aurka babesteko neurriak aplikatu beharra duten hegaztiak babesteko eremuetan sartu direla⁷. Gai horrek udal-eskumenak gaintzen baditu ere, interesgarria litzateke HAPOak eremu horiek Gainjarritako Baldintzatzaile gisa jasotzea, gutxienez informazio-moduan, bereziki kontuan hartuta zenbait linea elektrikok ez dituztela betetzen 1432/2008 Dekretuaren aginduak⁸.
 - Mehatxatutako florari dagokionez, Hondarribian espezie ugari biltzen dira, baina horien guztien kokapen ezagunak Jaizkibel KBE eta Txingudiko KBE/HBBEen barruan daude.
 - Baldintzatzaile gainjarri gisa Jaizkibel eta Aiako Harria (EAEko Korridore Ekologikoen Sarea⁹) lotzen dituen korridorea gehituko da.
 - Hondarribiko kostalde osoa sartuta dago EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektuan¹⁰, eta hori kontuan hartu behar da udal-plangintzan, paisaia-kalitatea zaintzeko, lurraldean garatzen diren jarduerak guztiak paisaian integratzeko neurriak ezarri.

1.3. Plangintza-aukerak.

a) Azaletik deskribatuko da zer aukera ezberdin hartu den kontuan plana formulatzeko prozesuan. Aukera horiek teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak izan behar dute, eta honako alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokapena, garapen teknikoa edo teknologikoa, denbora-garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 aukera edo esku ez hartzeko aukera ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b) Aukera horien irismena deskribatuko da, eta horietako bakoitzetik eratorritako proiektuen eta Planeko ekintzen arteko aldeak zehaztuko dira, 1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta IAEaren 1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta. Hau da, ordezeko balorazioak berekin ekarriko du proposamenak ingurumenean duen eraginaren laburbilduma egitea, ezarpenaren ondoriozko ekintza guztiak kontuan hartuta: artifizializatu gabeko lurzorua okupazioa, sarbideak, hornidura-azpiegiturak, saneamendua, sareak, eragindako mugikortasuna, etab.

⁵ <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/geografiko/interes-geologikoko-guneak/>

⁶ 2011ko urtarrilaren 10eko agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatu eta testu bakarra onartzen duena. 2013ko ekainaren 18ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburuarena, basa eta itsas faunaren eta floran arriskuan dauden espezieen EAEko zerrenda aldatzen duena.

⁷ Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduak mugatzen ditu arriskuan dauden hegazti-espezieak ugaltzeko eta elikatzeko lehentasunezko guneak eta haien sakabanatze- eta kontzentratze-guneak, eta, gainera, abifauna babesteko guneak argitaratzen ditu. Gune horietan abifauna goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan talka egitetik eta elektrokuziotik babesteko neurriak aplikatu behar dira.

⁸ Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenaren arabera, (horren bidez zehazten da zein diren 1432/2008 Errege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan ezarritako arau teknikoekin bat ez datozen goi-tentsioko aireko linea elektrikoak).

⁹ Gurrutxaga M., 2005. Euskal Autonomi Erkidegoko korridore ekologikoen sarea. Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza, Ingurumen eta Lurralde Plangintza Saila.

¹⁰ <http://www.euskadi.eus/catalogo/catalogo-de-paisajes-singulares-y-sobresalientes/web01-a2inadib/es/>

- c) Laburpen bat jasoko da adierazteko zergatik baztertu diren plangintza-aukera batzuk eta zergatik hautatu den azkenean proposatutako aukera.
- d) Behar denean, modu kartografikoan jasoko dira aztertu diren aukerak.

2. Ingurumenaren egungo egoeraren ezaugarriak zehaztea.

Deskribatuko da ingurumen-kalitateko zer elementu dauden Planaren eraginpeko eremuan. Elementu abiotikoak eta biotikoak deskribatuko dira, bai elementu mota bakoitzaren sektore-ikuspegitik, bai haien interakzioen ikuspegitik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen gunetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

IAEak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena.

- a) Ingurune fisikoa. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: arroka ama eta lurpe mota, iragazkortasuna, urrakortasuna, ur-masa eta -guneak, klimaren inguruko alderdiak eta lurzoru mota.
- b) Natura-ondarea. Halakorik bada, interes naturalistiko eta ekologikoko elementuak adieraziko dira: naturagune babestuak, baso autoktonoak, habitat interesgarriak, basoko flora eta fauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak, hezeguneak, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.

Ahal denean, datu kuantitatiboak emango dira, hala nola azalera, populazioaren tamaina, bikote edo banakoen kopurua eta garrantzi erlatiboa EAeko edo haren banaketa-eremu naturaleko populazio osoaren azalera eta tamaina osoari dagokionez. Halaber, honako hauei buruzko datuak emango dira: kontserbazio-egoera, interes-maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak eta Plana gauzatzeko areagotu daitezkeenak.

Apartatu hau egiteko, natura-intereseko elementuen inbentarioak, katalogoak edo erregistroak berrikusiko dira (plan hidrológicoetako eremu babestuen erregistroak, hezeguneen inbentarioak, baso-inbentarioak, mendien katalogoak edo espezieen zerrenda gorriak, besteak beste).

- c) Paisaia. Paisaiari dagokionez interesekoak diren eremuak hartuko dira kontuan, hala nola ikusizko mugariak eta pertzepzioaren ikuspegitik interesgarriak diren beste elementu batzuk. Paisaia-katalogoak erabiliko dira, halakorik dagoenean.
- d) Uholdeak izateko arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Planaren eremuko egoera akustikoaren gaur egungo gatazka akustikoak hautemateko eta etorkizunekoak aurreikusteko, informazio hau emango da:

- Zonakatzeko mapa: Planaren esparruko eremu akustikoen mugaketa, baita mugakideena eta trantsizio-eremuena ere, hala badagokio.
- Soinu-iturrien analisia
- KAHak betetzen direla egiaztatzea
- Azpiegituren zortasun akustikoak (hala badagokio)

Beste alde batetik, HAPOaren berrikuspenak, eabazpen honetan adierazitako eremu batzuen sailkapen-aldaketek gain, eremuen antolamendu xehatua planteatzen du. Eragin akustikoari buruzko azterlan bat erantsi beharko zaio espedienteari. Azterlan horrek zarata-mapak eta ebaluazio akustikoak izango ditu, etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten den eremu akustikoen inpaktu akustiko globala aurreikusi ahal izateko. Eragin akustikoari buruzko azterlan

horrek Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan zehaztutako edukiak izan beharko ditu.

e) Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes-a eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

f) Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria, eta abar.

2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak.

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, aztertuko da zein den ebaluazio-eremuko ingurumenaren egungo egoera, eta labor jasoko dira ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak. Zehatz-mehatz adieraziko da etorkizunean zer ingurumen-alderdik jasan dezaketen planeko ekintzen eragina.

Horregatik, jakin beharko da ea oinarritzko prozesu ekologikorik dagoen, eten edo aldatu daitekeenik Plana gauzatzean. Arreta jarri beharko da ingurumenari dagokionez interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, eta kontuan hartuko da non kokatuko diren eta zer ezaugarri izango dituzten planaren ondorioz sortuko diren proiektu edo ekintzek. Saihestuko da xehetasunez deskribatzea zein diren Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak ez diren alderdiak, eta ahalegin handiagoa eskainiko zaie ingurumen-arloko elementu, prozesu, arazo eta arrisku garrantzitsuei.

Kontuan hartuko da ingurumen fisikoaren zer faktorek eragin dezakeen edo garrantzitsu izan daitekeen Planean aurreikusitako proiektu eta ekintzen efektuak ebaluatzeko, hala nola ur-masen eta ur-guneen egoera, lurzoruen gaitasun agrologikoa, substratuaren iragazkortasuna eta egonkortasuna, eta ebaluazioan kontuan hartu beharreko ingurune abiotikoaren beste edozein alderdi.

Arreta jarriko zaie espezieen funtzio ekologikoei eta ziklo biologikoari eusteko garrantzitsuak diren eremu eta habitatei (elikatzeko, ugaltzeko, atseden hartzeko, sakabanatzeko edo populazioen arteko truke genetikorako garrantzitsuak diren eremuak). Kontuan hartuko da lehentasunezko habitat eta espezieak daudela, arrotzak edo gutxi ordezkatuak, kalteberak edo desagertzeko arriskuan daudenak eta, beraz, babestu beharrekoak.

Era berean, kontuan hartuko dira natura-ingurunea eta paisaia babesteko beste alderdi batzuk.

Halaber, arrisku jakin bat prebenitzeko edo murrizteko aurreikusitako plan edo proiektuei buruz eskura dagoen informazioa emango da, bai eta ingurumen-arriskuei eta hautemandako egoera problematikoei dagokienez ezagutzen den edozein administrazio-jarduerari buruzkoa ere, arreta berezia jarrita Plana gauzatzean gehitu, areagotu edo beste bitarteko batzuetara transferitu daitezkeen gaietan.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira kutsatutako lurzoruen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretua (urriaren 16ko 213/2012) aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Bi alderdi horiek azterketan jorratuko dira. Horretarako, IAEak argi eta garbi identifikatu behar du etorkizunerako hirigintza-garapenak dituzten zein eremutan onartuko den antolamendu xehatu berria plan honetan, eta zeintzuetan onartu beharko diren gerora aldaketak.

Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak.

Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da planak zer efektu edo ondore aurreikusteko modukorik duen IAEaren 2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatu beharko dira.

Planaren ondoreak identifikatu eta ezaugarritzeko, aztertuko da zer interakzio dauden planean aurreikusitako ekintzen eta eragina jasan dezaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, eta zer ingurumen-arazo edo arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek berezita: zeharkako efektuak, efektu metagarriak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

IAEaren 1.2.c) apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ondoriozko ingurumen-efektuak deskribatuko dira, apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea berariaz aipatuta. Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak.

Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Planari lotutako karbono-aztarna ebaluatuko da.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

– Aztertu beharko da zer eragin eta ondorio dituen HAPoak proposatutako antolamenduak Batasunaren intereseko habitatan, espezie autoktonoen basoetan eta interes bereziko beste eremu batzuetan. Zehazki, Zaldunbordan eta Zubietan jarduerak garatzeko proposamenarekin haltzen (*Alnus glutinosa*) eta lizarren (*Fraxinus excelsior*) (HIC, 91E0*) baso alubialean izan daitekeen eragina baloratuko da.

– Aiako Harria eta Jaizkibel lotzen dituen korridore ekologikoaren gaineko eragina baloratuko da. Korridore hori, gaur egun, oso mugatuta dago azpiegiturekin eta hirigintza-garapenean, eta haren funtzionaltasuna erabat mugatuta dago.

– Baloratu egingo da faunaren kontserbazioan izan dezakeen eragina. Zehazki, Letxunborro eta Puianako ibarbideko nekazaritza-polderren jarduketekin gertatzen den eragina baloratuko da, eta horiek babesteko aukera baloratuko da, faunarentzako funtzionaltasunari eusteko eta padura gisa lehengoratzeko aukerari eusteko.

– Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren maiatzaren 6ko Aginduaren arabera definitutako goi-tentsioko aireko linea elektrikoekin talka egitearen eta elektrokutatzearen aurka hegazti-fauna babesteko eremuetan izan dezakeen eragina aztertuko da.

– Aztertu beharko da zer eragin izan dezakeen uholde-arriskuak hirigintza-garapenetan, eta behar bezala justifikatu beharko da indarrean dagoen plan hidrológicoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokionez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterketa hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, haiek ere aurkeztu beharko dira gainerako dokumentazioarekin batera, ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko.

– Bereziki ebaluatuko da ibaien gaineko eragina.

– Eta balio agrologiko altuko lurzoruen ukipenak ere aztertuko dira.

– Kutsatuta egon daitezkeen lekuetan indusketen eta lur-mugimenduen ondorioz sortutako lurzatiak aztertuko dira. Halaber, lur-mugimenduetatik eta hainbat euste-horma eta -egitura jartzetik eratorritakoak aztertuko dira.

– Etorrizuneko hirigintza-garapenen kasuan, aurreikusitako erabilera-eraketa ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, indarreko araudian araututako metodologia erabiliko da, betiere ebaluatzen den antolamendu motara egokituta (egiturazkoa edo xehatua). Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera, etorkizunean hirigintza-garapenak aurreikusten badira (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne) eta planak eremuen antolamendu xehatua proposatzen badu, hirigintza- eta ingurumen-izapideetarako dagokion eragin akustikoaren azterlan sartu beharko da, dekretu horren 37. artikuluan aipatzen den edukiarekin. Inpaktu akustikoari buruzko azterlanak diseinu-aukeren azterketari helduko dio, GI-636 errepidearen eragin akustikoa aritzeko helburuarekin, egungo eta etorkizuneko iturriak kontuan hartuz. Ildo horretan, kontuan hartu beharko du, halaber, trafikoa areagotzearen ondoriozko eragin akustikoa.

– **Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioak:** Ingurumen-azterketa estrategikoko ageriko balioespina egin behar du, Natura 2000 Sareko guneetan izan dezakeen eraginari buruz. Horri dagokionez, gogorarazi behar da, 92743/EE Zuzentarauaren (Habitatari buruzkoa) arabera, Natura 2000 gune batetik kanpo garatu arren bertan eragin nabarmena izan dezaketean plan eta proiektuek kontserbazio-helburuetan izan ditzaketean ondorioak aztertu behar direla.

Hondarribiko HAPoaren eremuaren eremu babestuen artean daude Jaizkibel KBEa (ES2120017), Txingudi-Bidasoa KBEa (ES2120018) eta Txingudiko HBBEa (ES0000243). Eremua kaltetu dezakeen proposamen oro abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikuluan ezarritako dagoenaren arabera ebaluatuko beharko da; kasu horretan, azterlanak barnean hartu

beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35.1.c artikuluan jasotzen den berariazko apartatua, Natura 2000 Sareko guneek jasan ditzaketen ondorioen ebaluazioari buruzkoa. Aipatutako espazioetan eta interes bereziko beste eremu batzuetan kontserbatu beharreko elementuen gaineko eraginak ezaugarritu eta balioetsiko dira. Balorazio hori egiteko, kontuan hartu beharko dira 2.1.b apartatuan zehaztutako kontserbazio-egoera, presioak eta mehatxuak eta kontserbazio-helburuak. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen ondorioak behar bezala identifikatzeko eta eraginaren neurriaren gainean egon daitezkeen zalantzak argitzeke. Besteak beste, Urdanibia-Zubietan eta Karmeldarretan Txingudiko KBE/BBEan proposatutako garapenek izan ditzaketen eraginak baloratuko dira. Zehazki, apo lasterkariaren, arrain hiruarantzaren eta hegazti-faunaren habitataren kalitatean duen eragina baloratuko da.

Identifikatu eta kodetutako efektu edo ondoreak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- a. Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- b. Efektuen norainokoa eta irismen espaziala (adibidez, zenbateko azalera har dezaketen eraginpean).
- c. Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Naturari, kulturari eta paisaiari dagokienez ezaugarri berezirik ote dagoen.
 - IAEaren 2.1 apartatuan jasotako babes-espazioen urrakortasuna, kontuan hartuta zaindu beharreko elementuetan (habitatak, espezieak eta prozesu ekologikoak) izan ditzaketen ondorioak eta Planak kontserbazio-helburuak lortzea zein neurritan oztopa edo eragotz dezakeen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak ingurumen-arriskuak zein heinetaraino sortu edo areagotu ditzakeen.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da. Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-efektuak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

Ahal bada, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira eta, halaber, ahalegina egingo da zehazten plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

Adieraziko da ea detektaturiko efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa) 23. artikuluan ezartzen duena kontuan hartuta, HAPOk eremuaren zonakatzeko akustikoa egin beharko da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak aintzat hartuz, eta zonakatzeko hori erakusten duen planoak txertatu beharko da hirigintzako dokumentuetan. Aurreikusitako erabilerrako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan araututako metodologia erabiliko da.

4. *Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak*

Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi diren IAEaren 3. apartatuan deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko.

Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio nabarmenik sortuko, Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-, kultura- eta paisaia-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoaren aurrean hobetu eta egokitzea.

Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi den efektu bakoitzarekin erlazioatuko dira, IAEaren 3. apartatuan horretarako esleitutako kodea berariaz aipatuta. Bereziki, beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Berariazko neurriak, Jaizkibel KBEan (ES2120017), Txingudi-Bidasoa KBEan (ES2120018), Txingudi HBBEan (ES0000243) eta natura-ondarea eta lotura ekologikoa zaintzeko interes berezia duten udalerriko beste eremu batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuak babestera zuzendutakoak. Alde horretatik, xehetasunez azalduko dira ebazpen honetan aipatutako gune eta espezie mehatxatuak babesteko arau eta planetan aurreikusitako babes-neurriak eta kontserbazio-jarduketak, betiere hautemandako balizko ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo

zuzentzeko aplikatu beharrekoak badira, hala badagokio (215/2012 Dekretua, urriaren 18koa, eta 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa).

– Lotura ekologikorako garrantzitsuak diren zuhaitzi eta heskai autoktonoak zaintzeko neurriak deskribatuko dira. Intereseko landaredi-orbanen eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitaten babesa bermatuko duen gainjarritako baldintzari lotutako araudi bat sartzearen egokitasuna baloratuko da. Zaldunbordako sektorean, lehengoratzeko proposamen nahikoa egin beharko da, sektorearen ipar-mendebaldeko zerrendan berdegune bat ezartzeko, Aiako Harriaren eta Jaizkibelen arteko korridorea indartzeko. Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak bere txostenean planteatzen du beharrezkoa dela 1:2 konpentsazioa (kendua:leheneratua), kendutako baso-azalera ez ezik, haren funtzionaltasun ekologikoa ere konpentsatzeko, eta hori ahal bezain laster onartu eta gauzatzeko den leheneratze-proiektu baten bidez gauzatu beharko litzateke. Gainera, konektibitate ekologikoko prozesuak errazteko eta iragazkortasuna areagotzeko, Irun eta Oiartzungo udalerriekin baterako proiektuak/jarduketak planteatzeko aukera baloratuko da, ingurune horretako lotura ekologikoak berrezartze aldera.

– Neurriak hartuko dira ibaiko ur-bazterrak eta ibai-korridoreari dibertsitate eta funtzionaltasun ekologikoa eta paisajistikoa ematen dioten elementuak ez aldatzeko eta ez artifizialtzeko, eta horiek leheneratu, berreskuratu eta hobetzea sustatuko da ahal den guztietan. Ibai-ibilguen inguruan dauden garapen-eremuetan, EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planean eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan (2015-2021) ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoa laguntzen duten elementuena, eta, ahal denean, horiek lehengoratzeko, biziberritzea eta hobetzea sustatuko da.

– 1432/2008 Errege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan ezarritako preskripzio teknikoetara egokitzen ez diren goi-tentsioko aireko linea elektrikoak egokitzeko neurriak ezartzeko aukera baloratuko da (Natura Ondare eta Klima aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpena).

– Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, Ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatutako planetan ezarri diren irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Plana (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).

– Gainera, potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lursailak daudenez, eta ondorioz, lursail horiek etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena egiteari begira, plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz.

– Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurrekusiak kontuan hartuta.

– Eragindako paisaia babesteko, EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektuan sartutako Hondarribiko kostaldeko zerrenda gehitzea gomendatzen da, lurzoru urbanizaezinen antolamendu-kategoriei gainjarritako baldintzatzaile gisa.

– Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integrazteko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko gainazalak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzen eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar. Horretaz gainera, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena deuseztatze eta saihesteko.

– Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «*Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno*» eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

Deskribatzen den neurri bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori IAEko hurrengo apartatuetan erabiliko da, erreferentzia erabili behar bada.

Adieraziko da proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren, eta espresuki adieraziko da planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

Hala badagokio, prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, komenigarri edo egingarria denean haiak aplikatzea plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan.

Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzentze-neurrien aurrekontua ere bilduko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazita.

5. Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programak planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurriak jasoko ditu. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

Jarraipen-neurriak IAEaren 4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatu eta kodetuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute. Hauek zehaztuko dira jarraipen-neurri bakoitzerako:

- Jarraipenaren xede diren ingurumen-alderdiak edo -aldagaiak eta haien neurketa-adierazleak (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak).
- Zein diren gehieneko mugak edo erreferentzia-mailak parametro kuantifikagarrientzat.
- Adieraziko da planaren zein gauzatzeko-fasetan egingo den kontrol bakoitza, eta nor diren eragileak edo arduradunak.

6. Ingurumen-laburpena.

Apartatu honetan deskribatuko da zelan txertatu planean ingurumen-alderdiak.

Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ebazpen honen 2. apartatuan ingurumena babesteko deskribatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Aزتuko da, gainera, zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean efektu adierazgarriak izateko, eta argudio nahikoak emango dira, egiaztatze ezen, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak planean txertatzen badira, oso arrisku txikia dagoela efektu garrantzitsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Ingurumen Azterketa Estrategikoaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

7. Laburpen ez-teknikoa.

Emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du IAEak, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

Apartatu horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

8. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen duten ukitutako administrazio publikoari eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda hau hartuko da kontuan:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Errepide Zuzendaritza Nagusia Gipuzkoako Foru Aldundia
- IHOBE
- ADIF
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarteari.
- LANDARLAN Ingurumen Elkarteari
- Goierriko Landa Garapenerako GOIMEN Elkartea

9. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf

Bigarrena. -Ebazpen hau Hondarribiko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. -Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 2a.

Javier Aguirre Orcajo.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria.